

2018. urteko diru-laguntzen deialdia

Eremua: IMMIGRAZIOA

Diru-laguntzen lerroa: Etorकिनen elkarteen funtzionamendua.

1. artikulua. Esparrua eta xedea

Berdintasun, Lankidetzeta, Bizikidetzeta eta Jaietako Sailak, immigrazio esparruan, etorkinen elkarten funtzionamendurako diru-laguntzen deialdia egin du.

Helburua da Bilboko udalerrian etorkinen elkarteak sendotzea eta ahalduntzea, gizarteratzeko jarduerak sustatzeko.

2. artikulua.- Aplikatzekoa den araudia

Eskaerak ebazteko prozedurak honako hauetan araututakoa beteko du:

- Bilboko Udalak eta haren zuzenbide publikoko erakundeek deialdi bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorra (2016ko uztailaren 20ko BAO),
- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; eta azkenik, lege hori garatzen duen araudia.

Halaber, honako lege hauetan diru-laguntzen gainean ezarritakoa ere aplikatuko da:

- Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzkoa, eta gainerako araudi osagarriak;
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa, zehazki I. titulua.
- 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzkoa, zehazki II. titulua.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

3. artikulua. Erakunde onuradunak

3.1. Elkarte eskatzaileak Bilboko Udalaren herritarren partaidetzako erakundeen erregistroan inskribatutako **etorkinen elkarteak** izango dira, baldintza hauek betetzen badituzte:

- Elkarteak gutxienez 20 bazkide edukitzea.
- Udalerrian integratzeko programetan gutxienez urte biko esperientzia egiaztatua edukitzea elkarteak.

3.2. Erakunde eskatzaileek, eskariak aurkezteko epea amaitzen denean, Bilboko Herritarren Partaidetzako Erakundeen Udal Erregistroan erregistratuta egon behar dute eta erregistroko datuak eguneratuta eduki behar dituzte (Erregistroa Herritarrentzako Arreta, Partaidetzeta eta Barrutien Sailean dago: Venezuela plaza 2, 4. solairua) (2018ko otsailaren 12a).

3.3. Erakunde eskatzaileak egunean eduki behar dituzte betekizun fiskalak, Gizarte Segurantzakoak eta Bilboko Udalarekin dituzten zerga-betekizunak; hori, eskaria aurkezten dutenean eta prozesuak irauten duen bitartean (diru-laguntza esleitzea, betekizuna onartzea eta ordainketa egitea).

4. artikulua. Aurrekontu-kredituak

4.1. Deitzen diren diru-laguntzak Bilboko Udalak **2018**ko ekitaldirako onartutako aurrekontu orokorraren aurrekontu-kodearen 2018/00099 kontura finantzaren dira.

Deialdi honetarako zenbatekoa **15.000€** da.

4.2. Deialdia onartzen denetik diru-laguntza ematen den arte egoera ekonomikoak okerrera egiten badu, zenbateko horiek gutxitu daitezke, defizitik ez izate aldera. Izan ere, betekizun hori Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan dago ezarria eta administrazio publikoek bete egin behar dute; lege horri jarraikiz, beraz, horrelakoetan aurrekontuak doitu egin behar dira.

5. artikulua. Diru-laguntzak emateko prozedura

5.1. Diruz laguntzeko kontzeptuari aplikatzeko erregimena hainbanaketakoa da, hau da, diru-laguntzak emateko aurrekontu-zuzkiduraren zenbatekoa jasotako eskari guztien artean banatzen da, gehienezko zenbatekoa 800€ izanik.

5.2. Diru-laguntzak emateko, aurkeztutako eskariak alderatzen dira 9. artikuluan aipaturiko irizpideen arabera.

5.3. Diru-kopuru finkoaren arabera hainbanaketetan, gutxieneko puntuaziora (65 puntutara) heldu diren eta baldintzak betetzen dituzten eskari guztiek diru-laguntza jasotzeko eskubidea izango dute, zehazki diru-kopuru finkoa aplikatetik eratorritako zenbatekoa, lortutako puntuazioa kontuan hartu gabe. Hala eta guztiz ere, diru-laguntza jasotzeko eskubidea duten eskarien kopurua dela eta aurrekontu-zuzkidura nahikoa ez bada, zenbateko hori gutxitu egingo da.

6. artikulua. Diruz laguntzeko kontzeptuak

Diruz laguntzeko kontzeptuak elkartearen gutxieneko funtzionamendu eta mantentze-gastuak dira.

Diruz laguntzeko gastu bezala ulertuko dira: Ura, argia, gasa, telefonoa eta internet (elkartearen gauzetarako erabiliak), konponketak, bulegoko material suntsigarria (orriak, gutun-azalak, boligrafoak etab.), posta eta mezularitzako gastuak, elkartearentzako lonjaren alokairua, elkartearen jarduera berezietarako aretoen alokairua, inprimagailua eta zabalkunderako materialak, elkarteko bilerek eta jarduerak eragindako joan-etorrien gastuak, komunikazio-euskarri informatikoak (antibirusa, web orriak, blogak eta beste batzuk), prestakuntza gastuak, eta abar.

Garraioari erantzitako gastuak ezin izango dira, inolako kasutan, %20 baino gehiago izan.

Salbuespenak: ez dira diruz lagunduko inbertsio-gastuak, hau da, ordenagailuak, inprimagailuak, eskuko telefonoak, argazki kamerak, etab. Ez dira diruz lagunduko ezta memorian azaldutako elkartearen jarduerarekin zuzeneko loturarik ez duten gastuak ere. Azkenik, zeharkako gastuen kontzeptupean ezin izango da gasturik aurkeztu.

7. artikulua.- Eskabideak

7.1. Aurkezteko epea.

Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko egunean hasiko da eta 2018ko otsailaren 12an amaituko da.

7.2. Informazioa eta dokumentazioa.

Deialdiari buruzko informazio eta dokumentazio guztia hemen egongo da eskuragarri:

- Bilboko Udalaren web orrian (www.bilbao.eus).
- Bilboko Udalaren garendentasun-atarian (www.bilbao.eus/cs/Satellite/transparencia/es/inicio).
- Diru-laguntzen Estatuko Datu Basean (www.infosubvenciones.es).
- Bilboko Udalaren Herritarren Informazio Bulegoan eta barrutietako udal bulegoetan, ohiko ordutegietan.

7.3. Bideratzea

Eskariak Udalaren web-orriaren bitartez edo udal erregistroan egin daitezke.

- Eskaria **Udalaren web-orria** medio bideratuz gero, aplikazioak eskatzen dituen pauso guztiak eman behar dira eta eskatzen dituen datu guztiak jarri behar dira.
- Eskaria **udal erregistroan** aurkeztuz gero, diru-laguntzaren arlo eta ildo bakoitzeko eskari-orri bat bete behar da, Bilboko Udalak zehaztutako ereduaren arabera.

Orri horretan erakunde eskatzaileak diru-laguntza ildo horretan zer programa aurkeztu nahi dituen zehaztuko du, arloari dagozkion diruz laguntzeko moduko kontzeptuen arabera.

Eskari-orria aurkeztu daiteke Hiritarrentzako Arreta Bulegoan, barrutietako udal bulegoetan eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 16.4 artikuluan legez ezarritako gainerako lekuetan.

7.4. Erakundearen legezko ordezkaritza edo legezko ahalordea duen pertsonak sinatuko du eskabidea, aditzera emanaz adierazitako datu guztiak egiazkoak direla eta erakunde eskatzaileak onuraduna izateko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 24.2 artikulua ezartzen dituzten debekuetako bat ere ez duela, eta eskaeran adierazitako datuak egiazkoak direla.

7.5. Diru-laguntza eskariak ezin dute gainditu, inola ere, programa bati emateko zenbateko handiena. Gehienezko zenbateko hori diruz laguntzeko kontzeptu bakoitzean zehazten da.

7.6. Halaber, eskari guztietan kontuan hartu behar da diru-laguntzen eta beste iturri batzuen bitartez lortzen den finantziarioak, guztira, ezin duela gainditu aurkeztutako programaren kostua.

7.7. Bilboko Udalak, aurkeztutako eskariak hobeto baloratze aldera, egoki irizitako argibide guztiak eska diezazkiete erakunde eskatzaileei.

7.8. Programa bakoitza diru-laguntzen udal-lerro baterako bakarrik aurkeztu beharko da.

8. artikulua. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

8.1. Eskaria **Udalaren web-orriaren** bitartez bideratuz gero, bi dokumentu hauek aurkeztu behar dira, PDF formatuan:

- Landuko den programa bakoitzaren edukia azaltzen duen dokumentu bat; dokumentu horretan, gainera, aurkeztutako gastu-aurrekontua zehatz-mehatz azaldu behar da, "Jardueren Programa" deritzon ereduaren arabera. 1. eranskina ikusi.
- Erakundeak aurreko urtean egin dituen jardueren memoria (salbu erakundea duela gutxi sortu bada).

8.2. Eskaria **udal erregistroan** aurkezten bada, **dokumentazio** hau gehitu behar zaio:

- Programa bakoitzaren laburpen-fitxa, emandako ereduaren arabera.
- Programa bakoitzaren aurrekontuaren fitxa, emandako ereduaren arabera.
- Landuko den programa bakoitzaren edukia azaltzen duen dokumentu bat; dokumentu horretan, gainera, aurkeztutako gastu-aurrekontua zehatz-mehatz azaldu behar da, "Jardueren Programa" deritzon ereduaren arabera. 1. eranskina ikusi.
- Erakundeak aurreko urtean egin dituen jardueren memoria.

8.3. Eskaera sinatzen duenak espresuki baimenduko dio Bilboko Udalari egiazta dezala betebeharrak fiskalen eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean daukan. Dena dela, baimena espresuki ukatu ahal izango du, baina horretarako aurkeztu beharko ditu, administrazio eskudunak indarrean dagoen urtean emanik, zerga-betebeharrak ordainduta dauzkala egiaztatzen duen agiria eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ordainduta dauzkala edo langilerik ez daukala egiaztatzen duen agiria.

8.4. Bilboko Udalaren diru-laguntzarik edo beste edozein kontzepturengatik ordainketarik jaso ez duten eta, beraz, Hartzekodunen Erregistroan ez dauden erakundeek "hartzekodunen fitxa" aurkeztu behar dute, behar bezala beteta.

8.5. Eskaria ez bada behar bezala formalizatu edo aipaturiko datu edo dokumenturen bat falta bada, erakunde eskatzaileari **10 egun balioduneko epean akatsak zuzen ditzan** eskatuko zaio eta azalduko zaio akatsak ez zuzenduz gero eskaria artxibatu egingo dela, besterik gabe.

9. artikulua. Balorazio-irizpideak

Aurkeztutako programak irizpide eta puntuazio hauek aplikatuz baloratuko dira:

A) Programa baloratzeko irizpideak GUZTIRA 80 puntu

a) Programaren interesa. Gehienez 45 puntu.
Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

Udal Sailen ildo estrategiko, helburu eta irizpideekin bat etortzea; partaide-kopurua; aurreikusitako eragina; berrikuntza eta teknologia berrien erabilera; eremu geografikoa; programaren iraupena; kolektibo hartzailea; programaren egonkortzea

(aurrez landutako programen kasuan); beste erakunde batzuekin elkarlanean aritzea; jarduera non gauzatzen den.

- b) Programaren diseinuaren kalitatea..... Gehienez 10 puntu.
Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

Honako hauek sartzea: zer emaitza lortzea espero den, programa zenbateraino bete den jakiteko eta ebaluatzeko adierazleak, kanpo-komunikazioa, barne-komunikazioa, justifikazioa (programa gauzatzeko arrazoiak).

- c) Aurrekontua egokia izatea..... Gehienez 10 puntu.
Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

Finantza-ahalegina (beste finantziario-iturri batzuk bilatzea), baliabideak modu eraginkorren egokitzea, eta programaren interesaren eta aurkeztutako aurrekontuaren arteko erlazioa.

- d) Programan gai hauek zeharka nola lantzen diren: euskara, genero-berdintasuna, kultura-artekotasuna, gazteria, irisgarritasuna..... Gehienez 15 puntu.
Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

Elebidunentzako euskarazko jarduerak antolatzea, programak gazteen partaidetza integratzea, programan genero-ikuspegia kontuan hartzea, hizkuntza eta irudiak modu ez-sexistan erabiltzea, jardueren memoria sexuaren arabera banakatzea, jarduerak udalerriko kultura-aniztasuna aintzat hartzea, programa etorkinen elkarteetan eta/edo etorkinei laguntzeko elkarteetan zabaltzea, proiektuak multzo edo kolektibo desberdinen arteko harremanak lantzea, proiektuak atzeritarrek parte hartzea errazteko ekintza bereziak edo moldaketak edukitzea, programak pertsona guztientzako eskuragarritasuna ziurtatzeko neurriak izatea.

B) Erakunde eskatzailearen balorazioa.....GUZTIRA 20 puntu

Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

Esperientzia egiaztatua, programa lantzeko gaitasuna, egitura partizipatibo eta bidezkoa, koordinakundeetan parte hartzea, bazkideek prestakuntza-ikastaroetan parte hartzea, bazkide-kopurua, egoitzaren irisgarritasuna.

10. artikulua. Izapideak eta balorazioa

10.1. Prozeduraren izapideak egiteko eskumena Berdintasuna, Lankidetzeta, Bizikidetzeta eta Jaietako Saileko Immigrazio Negoziatuari atxikitako langileek izango dute.

10.2. Kide anitzeko organo gisa jardungo duen balorazio-batzordeko kideak hauek izango dira:

Presidentea: Berdintasuna, Lankidetzeta, Bizikidetzeta eta Jaietako Saileko Zinegotzi Ordezkarria

Idazkarria: Berdintasuna, Lankidetzeta, Bizikidetzeta eta Jaietako Saileko Zuzendaria.

Kideak: Berdintasuna, Lankidetzeta, Bizikidetzeta eta Jaietako Saileko Immigrazio Negoziatu Burua eta Immigrazio teknikaria.

10.3. Deialdi honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera eskariak ebaluatu ondoren, Balorazio Batzordeak txostena egingo du, egindako ebaluazioaren emaitza jasotzeko.

10.4. Instrukzio-organoak, espedientea eta Balorazio Batzordearen txostena kontuan hartuta, behin betiko erabaki-proposamena egingo du.

11. artikulua. Berriz antolatzea

Behin programa guztiak baloratuta, erakunderen bati emateko zenbatekoa ez badator bat hark eskatutakoarekin, arau hauek beteko dira, deialdi bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Bilboko Udalaren Ordenantza Orokorreko 10.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz:

A) Emateko diru-laguntza eskatutako zenbatekoaren % 70 edo handiagoa bada, Bilboko Udalak, ofizioz, erakundeak bere garaian aurkeztutako aurrekontua gutxituko du, proportzionalki.

Jardueraren amaieran, aldatutako azken aurrekontu hori justifikatu beharko du erakundeak.

B) Emateko diru-laguntza eskatutako zenbatekoaren % 70 baino txikiagoa bada:

a) eta eskatutako zenbatekoa 2.000 euro edo gutxiago bada, prozedura aurreko atalean (A) zehaztutako berbera izango da.

b) eta eskatutako zenbatekoa 2.000 euro baino handiagoa bada, Bilboko Udalak erakundeari jakinaraziko dio 10 eguneko epean programa berrantolatu beharko duela, aurrekontua zenbateko horren arabera egokitzeko, edo, bestela, diru-laguntzari uko egin beharko diola. Udalak, erakundearen erantzun espresua jasotzen ez badu, ulertuko du diru-laguntzari uko egitea erabaki duela.

12. artikulua. Ebazpena

12.1. Prozedura ebaztea Gobernu Batzarrari dagokio.

12.2. Eskariak ebazteko eta erakunde eskatzaileak jakinaren gainean jartzeko gehieneko epea 6 hilabete da, deialdia argitaratutako egunetik kontatzen hasita. Alde horretatik, onartutako zein ukatutako diru-laguntzen berri emango da.

Sei hilabeteko epea amaitu eta ebazpenaren berririk jaso ez badute, erakundeek, administrazioaren isiltasuna dela eta, diru-laguntza eskaria atzera bota dutela uler dezakete.

12.3. Administrazio-bidea amaitzen duen ebazpenaren kontra erakundeek aukerako berraztertze errekurtsoa jar dezakete Tokiko Gobernu Batzarraren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Halaber, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere jar dezakete, dagokion Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

13. artikulua. Diru-laguntzak ordaintzea

13.1. Orokorrean, diru-laguntzak aurrez ordainduko dira, justifikatu aurretik, oso-osorik, diru-laguntzari dagozkion jarduerak gauzatzeko behar den finantziario gisa eta inolako bermerik eskatu gabe.

13.2. Diru-laguntza banku bidezko transferentzia bidez ordainduko da, erakundeak Bilboko Udalaren Hartzekodunen Erregistroan duen kontu korrontean.

13.3. Erakunde onuradunak aurreko diru-laguntzaren bat justifikatzeko epea amaitu eta justifikatu ez badu, ez du diru-laguntza jasoko. Halaber, erakundeak aurreko diru-laguntzaren bat itzultzea eskatu eta itzuli ez badu, ez du diru-laguntza jasoko.

14. artikulua. Erakunde onuradunak diru-laguntzaren inguruko publizitatea egitea

Diru-laguntza jasotzen duten erakunde guztiek Udalaren finantziazioa jaso dutela adierazi beharko dute eta, horretarako, Bilboko Udalaren logotipoa jarri beharko dute sortzen dituzten paperezko materialetan (kartelak, liburuxkak, informazio-orriak...), oroitzapenezko plaketan, bitarteko elektronikoko edo ikus-entzunezkoetan eta idatzizko komunikabideetan argitaratzen dituzten iragarkietan. Argitalpenetan, horrez gain, edukiaren gaineko erantzukizun-klausula bat jarri beharko dute, testu honekin:

Proiektu honek Bilboko Udalaren diru-laguntza jaso du, baina erakunde onuraduna da edukiaren erantzule bakarra.

Erakundeei Bilboko Udaleko sailek emango diete Udalaren logotipoa.

Gainera, erakundeek bi hizkuntza ofizialak, euskara eta gaztelania, erabili behar dituzte diruz lagundutako programa edo jardueraren publizitatea egiteko sortzen dituzte kartel, testu eta dokumentuetan. Orobat, diruz lagundutako jarduera sustatzeko adierazpen publikoak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dituzte, ordena horretan.

Erakunde onuradunek jaso dituzten diru-laguntzen publizitatea gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean ezarritako moduan eta baldintzen arabera egin beharko dute. Lege horretako 5.4 artikuluan jasotako aurreikuspenaz baliatuz gero, Diru-laguntzen Datu-base Nazionalak bitarteko elektronikoa erabiliko du publizitatearen inguruko zereginak betearazteko.

15. artikulua. Azpikontratazioa

Erakunde onuradunek, jarduerak azpikontratatzeko, deialdi bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorreko 13. Artikuluan eta Diru-laguntzen Lege Orokorreko 29.2 artikuluan ezarritakoa bete behar dute.

16. artikulua. Programa aldatzea

Programan aldaketa handiren bat egin aurretik, eskaria egin behar zaio Bilboko Udalari, erregistroa medio, eta Udalak berariaz baimendu behar du.

Aldaketa handiak egiteko eskariak arrazoitu egin behar dira, eta aurrekontuan eta kronograman zer eragin izango duten zehaztu behar da. Gobernu Batzarrak dagokion saileko ordezkariari eskuordetu dio aldaketa horiek baimentzeko zeregina.

Honako hauek hartzen dira aldaketa handitzat:

- Helburu orokor eta/edo espezifikoko aldatzea.

- Onartutako aurrekontu-partidetako zenbatekoak % 20 baino gehiago aldatzea (partiden arteko aurrekontu-aldaketek ezin diete zeharkako kostuei eragin), programaren aurrekontu osoa gutxitu gabe.

Aldaketak programaren aurrekontua gutxitzea badakar, Gobernu Batzarrak onartu behar du.

Diru-laguntzaren izaeraren eta helburuen funtsean eraginik ez duten aldaketak diru-laguntzak justifikatzen direnean onar daitezke, betiere aldaketa horiek onartzeak hirugarrenei kalterik egiten ez badie.

17. artikulua. Uko egitea

Behin diru-laguntza emanda, erakunde onuradunek diru-laguntzari uko egitea eska diezaioke Bilboko Udalari, erregistro bidez.

Eskaria jarduera gauzatzeko epea amaitu baino lehen aurkeztu behar da eta dagokion saileko ordezkariak onartu ondoren izango du eragina. Erakundeak, hala badagokio, jasotako zenbatekoa itzuli beharko du.

18. artikulua. Beste diru-laguntza batzuekin bateratzea

Bilboko Udalak emandako diru-laguntzak bateragarriak dira beste administrazio edo erakunde publiko eta pribatu batzuek emandako diru-laguntzekin. Betiere, diru-laguntzen eta beste iturri batzuen bitartez jasotako finantziazioak ezin du izan diruz lagundutako programaren kostua baino handiagoa.

19. artikulua. Diru-laguntzak justifikatzea

19.1. Justifikatzeko epea

Erakundeek jasotako diru-laguntzak justifikatzeko hiru hilabeteko epea izango dute, programa amaitzen den egunetik kontatzen hasita, edo diru-laguntza jasotako egunetik, programa egikaritu ondoren jaso badute.

19.2. Justifikatu beharreko zenbatekoa

Diru-laguntza jasotzeko aurkeztutako aurrekontuaren % 100 justifikatu behar da, ez Bilboko Udalak emandako zenbatekoa bakarrik, Diru-laguntzen Lege Orokorrean zehaztutako moduan.

19.3. Justifikatzeko sistema

Diru-laguntza justifikatzeko, erakunde onuradunak programa bakoitzean egindako gastuaren justifikazio-kontua aurkeztu behar du, honela:

- a) Programa gauzatzeko egindako jardueren memoria eta lortutako emaitzak. Horrek guztiak bat etorri behar du diru-laguntza eskatutakoan aurkeztutako programarekin.
- b) Programaren egikaritzeari dagokion gastu eta diru-sarreraren balantzea, emandako ereduaren arabera egina.
- c) Programa egikaritzeko gastuen fakturen zerrenda, emandako ereduaren arabera egina.

- d) Kasua denean, itzulketaren ordainagiria aplikatu gabeko soberakinetan, baita horietatik sortutako interesena ere.
- e) Diru-laguntza ematen duen organoak, laginketa geruzatu konbinatu bidez, egoki irizten dituen frogagiri osagarriak eskatu ahalko ditu, diru-laguntza modu egokian aplikatu dela ziurtatzeko. Horretarako, honakoa eskatuko da:

-Programa egikaritzeko aurreikusitako epean egindako gastuak egiaztatzeko jatorrizko frogagiriak, deialdi bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorreko 14.2 artikuluan ezarritako moduan. Zehazki esateko, programa egikaritzeko zuzeneko kostu guztiak, fakturen eta froga-balio bera duten agirien bitartez justifikatuta.

Gastuak justifikatzeko frogagiriekin, beti, datu hauek eduki behar dituzte:

- Erakunde onuradunaren identifikazioa.
- Gastuaren helburuaren deskribapena; gastuak, betiere, programaren egikaritzearekin lotura zuzena izan behar du.

-Alde horretatik, frogagirik justifikatzen duten programarenak izan behar dute, bakar bakarrik.

-Salbuespen gisa, enpresaburu edo profesional ez diren pertsona fisikoek noizean behin egiten dituzten jardueren kasuan, aurkeztu daitezke hitzartutako prestazioaren zenbatekoaren ordainagiria eta hartzailearen nortasun-agiria (NAN, AIZ edo pasaporte). Alde horretatik, zenbatekoa 200 euro baino handiagoa bada, ordainketa hartzailearen banku-kontuan egin izanaren egiaztapena ere aurkeztu behar da, nahitaez.

-Pertsonal-gastuak egiaztatzeko soldata-orriak eta Gizarte Segurantzako kotizazioak aurkeztu behar dira.

19.4. Justifikaziorik egiten ez bada edo justifikazioa nahikoa ez bada

Justifikazioa aurkezteko betekizuna betetzen ez bada edo justifikazioa nahikoa ez bada, erakunde onuradunak jasotako zenbatekoak itzuli beharko ditu, dagozkien berandutze-interesak barne, Diru-laguntzen Lege Orokorreko 37.1 artikuluan ezarritako moduan.

20. artikulua. Diru-laguntzen publizitatea

Urtea amaitu baino lehen, emandako eta ukatutako diru-laguntza guztiak Udalaren web-orrian argitaratuko dira.

Halaber, Diru-laguntzen Datu-base Nazionalean diru-laguntzen berri emango da, Diru-laguntzen Lege Orokorrean ezarritakoaren arabera.